

BALIO PROPOSAMENA

Guk pentsatu dugun proiektua, **arropa marka** bat egitea da, baina ez soilik arropa marka bat. Gure enpresa besteengandik desberdinduko da gure enpresa arropa jasagarria egingo duen enpresa bat izango delako. Gaur egun oso kutsatuta dagoen mundu batean bizi gara, eta gure ustez arazo larria da hori, horregatik kontzientziatu nahi dugu jendea.

Horretarako, gure enpresan, gainerako enprekin alderatuta, **ingurumenari begira lan egingo dugu**. Gure arropa ekoiztuko duen enpresa aukeratzeko orduan ezinbesteko baldintza izan behar da ekoizpen prozesu jasagarria izatea.



Nahiz eta arropa jasagarria izan gure helburua baita ere, arropa erakargarri eta kalitate oso oneko produktuak merkaturatzea da eta nola ez prezioari begira edonoren eskura egongo den marka bat izatea nahi dugu. Azkenean, gaur egun jendea horretan fijasen da arropa erosterako orduan. Garrantzitsuena pertsona horren gustokoa izatea da eta horri gehitzen badiozu arropa iraunkorra izatea eta merkea, jendea oso pozik egongo da arropa markarekin, bere kontsumo helburuak beteko ditugulako.

Iraunkorra izateak gure emaitzen kontua hobetu dezake, baliabideak modu eraginkorragoan erabiliz lan egiten delako. Energia, ura eta materialak aurrezteak kontsumitzaileari eta enpresari balio handiagoa eskaintzeko aukera emango digu. Arrazoi hauengatik uste dugu gure bezeroak aukeratu gaituztela. Gainera ere gaur egun jendea oso kontzientziatuta dago aldaketa klimatikoko arazoengatik, eta orduan gure marka erosi dute inpaktu gutxikoa eta ekologikoa delako.



Gure arropa marka, Street beast izena du eta 5 partaidez osatuta egongo da Josu Marcos, Kerman Ortuzar, Gabriel Viera, Hodei Berrocal eta Ander Martin. Marka honek gerritik gorako arropa eta osagarrietan espezializatuko da. Sudaderak eta kamiseta, gehien merkaturatuko ditugun gauzak dira baina horrez gain biserak bandanak edo txamarrak baita ere ekoiztuko ditugu.